

Antxiñako fotografixak

Oñatiko lehenengo Haurren Eguna

Ondotxo gogoraketan naiz 1970eko agorraren akaberako egun harekin. Frankismuaren azkenengo urtiak ziran eta giro politikua zihero gaiztotuta eguen Euskal Herri gehixenian. Kontuan izan handik bi-hiru hillabetera Burgoseko prozesu famaua izan zala. Dana dala, milla eragozpen, debeku eta salbuespen-egoeren gainetik edo azpittik, ahal gebena egitten saiaketan giñan. Momentu haretan neska-mutil gaztien **Oñatz** alkartia zan gehixentsuen mobiduten zana Oñatin. Aurreko urtietatik etorren horretarako pultzakadaxua: hitzaldixak, teatro-taldiak, aldizkarixa eta beste zenbait ekintza.

Ba, samura izan ez arren, 1970ko amaierako hiru hilla-bete horreittan bi ekiñaldi inportante, gutxienez, burutu ziran gure herrixan. Batetik, gorago aittatu dogun lehenengo **Haurren Eguna**, San Migel aurtxuan; eta bestetik abenduaren hasieran San Lorentzoko ETEOn **Ez dok hamairu** taldiak Euskal Herri osuan eskiñittako **Baga, biga, higa** ikuskarixaren azkenengo emunaldixa.

Haurren Eguna 1970ian antolaketako, jente asko mobilizau zan. Baimenak lortu, beste herri batzuetako taldiekin hartu-emunetan jarri, egun osoko programia moldau, kanpoko umiendako bazkaitteko etxiak topau eta beste hainbat gauza modutu bihar izan ziran. Edozein modutan, gustau zan nunbait, harrezkeroko berrogei urtietan eten barik ospatu da-eta San Migelak baiño lehentxuago. Egun horren beste ondorixo inportante bat **Oñatz** alkartiaren barruan izen bereko dantza-taldia sortzeia izan zan. Alkartia deseginddu zan, baiña **dantza-taldiak** sendo irauten dau ixa berrogei urtian.

Egixa esan, **Oñatz** dantza-taldiaren sorreria Haurren Eguna baiño gerutxuago etorri zan. 1970ko estreñiadi haretan Zubillagako **Izarrak** izeneko nesken dantza-taldia izan zan oñatiarren ordezkarixa. Urte batzuk lehentxuago eratu zan, **Alejandro** eta **Jexus Irizar dantza-maixu** zirala eta **Hijinio Iriarte** eta **Gotzon Osinaga txistulari**. **Dantzarixak**, barriz, ondorengo honeik ziran, bestiak beste: **Arantza Liberry**, **Garbiñe Urizabel**, **Puri Urizar**, **Resu Arantzeta**, **Lurdes Agiriano**, **Lurdes Igartua**, **Mari Karmen Etxaniz**, **Beatriz Igartua** eta **Txaro Uribetxeberria**. Argazkixetako batian ikusten dittugu Kale Zaharrian gora, Jexus Irizar dantza-maixuarekin eta Hijinio Iriarte txistularixarekin; eta ondoren ume-pillatxo bat.

Beste fotografixan, ostera, lehenengo jai horretarako aukeratu ziran aginttaritxuak ikusi geinke ezkerretik eskumara: **Jorge Murguzur**, Olabarrietakua; **Simon Arregi**, Santa Marinakua; **Joxe Azkoitia** abade-papelian, araoztarra; **Roberto Igartua** alkate-zibittiarekin, zubillagarra; **Iñaki Igartua**, Uribarrikua; **Mikel Gereka**, Kale Zaharrekua, eta **X. X.** Atzian banderiaz **Migel Biain**.

J. E.

Fotografixak Jexus Irizarrek itzi dosku. Argibidiak, aldiz, Jexusek ez ezik, Beatriz Igartuak eta Juan Mari Murguzurrek be samurtu doskue. Milla esker danoiri!

